

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

29/2019 TXOSTENA

**Gaia:** Itsas-Gane futbol zelaiko belar artifiziala aldatzea

**Espediente tramitatzaila:** Erosketa saila

**Espediente zenbakia:** KON\_IRE\_0010

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.h artikulua eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.8 Xedapen Gehigarria

**Prozedura:** Ireki harmonizatua

**Izapidea:** Arrunta

**Balio estimatua:** 507.034,56€

**Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua:** 613.511,82€

**Epea:** 5 urte

**Esleipen irizpideak:**

- Objektiboak: Prezioa (60), berme epearen luzapena (10), exekuzio epea gutxitzea (10)
- Subjektiboak: Obraren analisia, metodologia eta errekurtsioak(20)

Ikuskatutakoa	Bete da	Oharrak
<b>Espedientea</b> hasteko beharrezana justifikatu da	Bai	2019/05/03ko txostena
Xedea, beharrezana, iraupena, prozedura, kaudimena, baldintzak eta irizpideak justifikatu dira	Bai	2019/05/09 teknikariaren txostena
Helburua ez dela zatitu justifikatu da	Bai	
Loteak aplikatu dira edo ez aplikatzea justifikatu da	Bai	
Kreditu atxikipena dago	Bai	2019/00300
<b>Plegu administratibo eta tekniko zehatzak</b> daude	<u>Bai</u>	<u>*Gabeziak</u>
<u>Aurretzio</u> ikuskatze ekonomikoa dago	<u>Ez</u>	<u>Ondoren egingo da</u>



CPVa egokia da	Bai	
Kontratazio organoa zuzena da	Bai	OB
Kontratuaren iraupena zuzena da	Bai	5 urte
Kontratua aldatzea modu argi, zuzen eta zehatzean		Ez dira aurreikusten
Kontratuaren mota eta izaera juridikoa zuzena da	<u>Ez</u>	<u>*Gabeziak</u>
Prozedura egokia dela justifikatu da	Bai	Ireki harmonizatua
Izapidea egokia da	Bai	Arrunta
Proposamenak aurkezteko epea egokia da	Bai	30 egun (elektronikoki egingo delako)
Esleipen irizpideak egokiak dira	Bai	<u>Ez dira irizpide sozial edo ingurumenekoak</u>
Justifikazioa		<u>ezarri</u>
Helburuarekin lotura		
Proporzionalak, objektiboak		
Irizpide sozial edo ingurumenekoak		
Errekurtsoak zuzenak dira	Bai	

**\*Pleguetan ikusitako gabeziak**

- Ordaintzeko era ez da zuzen ikusten. Izan ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 102.8 artikulua dio: "*Se prohíbe el pago aplazado del precio en los contratos de las Administraciones Públicas, excepto en los supuestos en que el sistema de pago se establezca mediante la modalidad de arrendamiento financiero o de arrendamiento con opción de compra, así como en los casos en que esta u otra Ley lo autorice expresamente*".

Kontratu mistoen araubide juridikoaren inguruan, 18. artikulua dio: "*El régimen jurídico...de sus efectos, cumplimiento y extinción se determinará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 122.2.*"

122.2. artikulua araberaz: "*En el caso de contratos mixtos, se detallará el régimen jurídico aplicable a sus efectos, cumplimiento y extinción, atendiendo a las normas aplicables a las diferentes prestaciones fusionadas en ellos.*"

Beraz, eragin, betetzea eta iraungipenaren inguruan jo behar dugu, bai, obra, bai zerbitzu, eta bai horniduren arau konkretuetara. Arau horien arabera ordainketa atzeratua debekatuta dago, salbu eta horniduren kasuan alokairu bitartez egiten bada.



Baina obra eta zerbitzuetan prestazioa ematen denean egin beharko da ordainketa Sektore Publikoko Kontratuen Legeak obra eta zerbitzuetarako ezartzen dituen betekizunak errespetatuz.

- 50.000 eurotik gorako **obrak** aurreikusten badira 231. artikulua bete behar da tramitazioan. Artikulu horrek dio: *"1. En los términos previstos en esta Ley, la adjudicación de un contrato de obras requerirá la **previa elaboración, supervisión, aprobación y replanteo** del correspondiente proyecto que definirá con precisión el objeto del contrato. La aprobación del proyecto corresponderá al órgano de contratación salvo que tal competencia esté específicamente atribuida a otro órgano por una norma jurídica."*

- Pleguetako administratiboetako 8. artikulua, finantziazioari buruzkoa zuzendu behar da **2019.** urteari erreferentzia eginez.

- Plegu administratiboen 21. artikuluan zehaztu behar da lehiaketa ireki **harmonizatuaren** bitartez egingo dela.

- Plegu administratiboen 25. artikuluan gehitu behar da kontratugilearen profilean ez ezik, **formalizazioa** DOUEen ere argitaratuko dela, hori guztia SPKLaren 154.1 artikulua araberara.

- Kontratu mistoa dela esaten da eta hornidura dela oinarritzkoa. Hornidura kontratuaren esanahia SPKLaren 16. artikuluan jasotzen da. Artikulu horrek dio: *"Son contratos de suministro los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de **productos o bienes muebles.**"* Beraz, hornidura izateko produktu edo ondasun higigarria izan behar da. Horregatik, teknikoki zehaztu behar da belar artifiziala kentzean galerarik sortuko bada edo ez, Kode Zibilaren araberara ondasun higigarria den zehazteko.

- Irizpideen inguruan, ez dira irizpide sozial edo ingurumenekoak baloratzen.

Ondorioa	Oharrak
X Kontrako txostena	Aurretik adierazitakoak

*Orri oinean sinatzailea eta data*

